

# Udal talde politikoaren iritzia



ZORIONAK, BIZKAIA ZUBIA

Zorionak: aurten Bizkaia Zubiaren 125 urteak ospatzen ari gara. Non eta Getxon, noski. 125 urte dira arkitekturaren, artean, garraioan, kulturean, gizartearen, industrian eta beste zenbait alorretan oso garrantzitsua den obra hau egin zenetik. 125 urte bete ditu Bizkaia Zubiak, Zubi Eskiak. Hala eta guztiz ere, Getxoko edo Bizkaiko ikonoa ez ezik, Euskadi osoaren ezaugarria da mundu zabalean. Izan ere, Nerbioiko itsasadarraren bi bazterrak batzen dituen zubia izateaz gain, gure Herriaren eboluzioaren ikurra da, industria-iraultzarena, eta garena izatera ekarri gaituen gizarte garapenarena. Getxok eta Portugaletek elementu arkitektoniko eta estruk-

tural hau partekatzen dugu, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu duena, eta itsasadarraren eskuinaldea eta ezkeraldea lotzen dituena. Herrien eta pertsonen arteko lotura da eta, noski, mundu mailako erreferentzia bere kategorian. Bizkaia Zubiaren Getxo bisitatzera datozen pertsonentzat erakarpen handia da, eta hala izaten jarraituko du. Aste Santuko oporrak joan dira eta ikono hori, bere 125 urteko historia ospatzen duena, erreferentzia handia da gure herrira etorri diren turistentzat. Asko izan dira opor labur hauetan Getxora etorri diren pertsonak, turismo bulegoak 2018. urte honetarako prestatu dituen eta udalerriko 230 enpresaren parte



hartzea jasotzen duten 73 esperientziak gozatzen. Proposamen horiek Getxoko kulturaren, kosta-jardueraren, gastronomiaren, kirol eta natur jardueraren, edo ondarearen alorretakoak dira. Eta, hain zuzen ere, hementxe, Getxoko monumentu-ond-

arearen alorrean, nabarmentzen da Bizkaia Zubiaren modu berezian. Zorionak eta eskerririk asko 125 urte betetzeagatik eta arkitektura, garraio edo konexioan eta gizarte-konexioan mundu mailako ikono bat izateagatik.

PSE-EE  
PSOE

HEZKUNTZA  
KLASISTA

Azken osoko bilkuran, Partido Popularrak mozio bat aurkeztu zuen, "Bikaintasunaren sariak" proposatzeko, udalerriko ikaslerik onentzat. Getxoko ikasleek ahalegin akademikoak baloratu gura zuten, eta hori ez dago txarto. Baina testuak salatzen ditu. Lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko bigarren mailako ikasleek ari ziren bakarrik. Getxon eskolatutako ikasleei eta "hainbat arrazoi tarteko" ikasketak beste udalerriri batzuetan egiten dituzten ikasleei zuzendurik daude. Klasiak dira lanbide heziketa edo heziketa zikloak aipatzen ez dituztelako. Gainera, onartezina da lehen hezkuntzan lehia sustatzea, hain gaztetatik, eta susmagarria da udalerritik kanpo eskolatutako ikasleak berak eska dezala "saria". Nahita ahazten dute irakasleentzako oinarriko printzipioa, hau da, berdintasun eza konpentsatu behar duela eta askotaritasuna integratu. Horren ordez, darwinismo soziala bultzatzen dute: gaitasunak eta inguruabar pertsonal eta sozioekonomikoak gorabehera, lehenetsia daukana haien "bikaintasuna" da. Cristina Cifuentesek daukan horixe bera.

CS

BORONDATE POLITIKO  
EZA

Martxoan bi mozio ekarri genituen osoko bilkurara. Haietako baten bidez, Algortako San Martin 17ko eraikina nagusien zentro bihurtu nahi genuen, auzo honetan beharrezkoa baita. Beste alde batetik, herritarren zenbait kexa jaso ondoren, eskatu genuen Bidezabalgo anbulatorioko autobusa hobeto komunikatu dadila Salsidu eta Bizkerre zonekin, komunikazio hori orain nahiko kaskarra baita. Zoritxarrez, ez zen borondate politiko nahikorik egon gainerako udal taldeen aldetik, eta mozioak ezetsi egin ziren. Hala eta guztiz ere, hobekuntza horiek finkatzeko borrokan jarraituko dugu, beharrezkoak direlako eta herritarrek gura dituztelako.

PP

EAJ ETA PSEK ETAKIDEEI OMENALDIAK GALARAZTEAREN AURKA BOZKATU DUTE

Bizkaiko PPK, duela aste pare bat, iragarri zuen udal guztietan mozio bat aurkeztuko zuela, eskatzeko espazio publikorik ez dadin utzi terroristei omenaldiak egiteko. Getxo izan da mozio hori eztabaidatzen eta bozkatzeko lehenengoa. Zoritxarrez, EAJ eta PSEk, koalizioan gobernatzen dutenek, gaia saihestu zuten. Eusko Legebiltzarreko eztabaida errepikatu baino ez zuten egin bi alderdi horiek, nahiz eta gure asmoa eztabaida udalaren esparrura ekartzea izan zen. Osoko bilkuran azaldu nahi genuen herrietan zer gertatzen ari den une honetan, alkateek euren esku baitute udal espazioak uzteko edo ez uzteko eta kalean hiltzaileen omenaldiak egitea galarazteko ahalmena.



GK

DENAREN ETA DENEN AURKAKO GOBERNUA

Martxoko osoko bilkuran, Gobernu Taldea berarenak ez ziren proposamen ia guztien aurkako jarrerarekin ikusi genuen. Gainera, ikusi genuen udaleko langilearen plantillan aldatetako egiteari buruzko proposamena ekarri zutela. Gehiengo zabal bat aurka agertu zen, eta gehiengo hori ez zen bakarrik politikoa, baizik eta teknikariena, sindikatuena eta langileena. Proposamen hori arbitrarioa eta motibatu gabea zen, eta PPRi esker atera zen aurrera, abstenitu egin baitzen, "azken aldiz, Gobernuari

abisatzeko pazientzia amaitzen ari zai-gula hainbeste partxerekin". Baina denok genekien haxe zela aurre egiteko unerik onena. Halere, PPK berriro ere erabaki zuen EAJ-PSEren euskarri izatea: kontraesan garbiak erakutsi zituzten, beste puntu batean esan baitzuten gobernu-taldeari lezio bat eman gura ziotela, faktura soil batzuk ordaintzearen aurkako botoa eman. Faktura horiek, hain zuzen ere, udalerriko parke eta lorategietako mantentze zerbitzua kontratutik KANPO (kontratua berriztatzean gertatu diren atzerapenen on-

dorioz) eman behar izan duen enpresari ordaindu behar zaizkio. Ez dugu ulertzen nola egin dezaketen zerbitzu bat kudeatu duen eta horregatik kobratzeko eskubidea duen enpresa bati ordaintzearen aurka, eta gainera udal honetako plantillako langile guztien eskubideen aurka jo. Azkenik, oposizioko taldeen proposamen guztietatik, EAJ-PSEk ia guztien aurka bozkatu zuten; hain zuzen ere, gure taldeak ekarri zuen proposamen bat baino ez zen aurrera atera, guztira zeuden 11 mozioetatik.

ehbildu

EAJ-K GETXO KIROLAKEKO IRAKASLEEN EGOERA KONPONDU BEHAR DU

Getxo Kirolaketa diharduten kirol irakasleek "nahikoa da" esan dute. Pairatzen duten lan egoera onartezina da eta Getxo Kirolaketa dagokio beraien lan baldintzak bermatzea.

Publikoki salatu dutenez 12 urte daramatzate soldata igorarik gabe, kontratu partzialekin, opor eskubiderikgabe...

EAJk eta PSEk bultzaturiko azkitontratazio politika da 52 langile horiek pairatzen duten egoeraren



arrazoia. Hori dela eta hiru eskakizun egin dizkiogu gobernu taldeari: irakasleekin bildu dadila arazoari irtenbidea bilatzeko, zerbitzua berreskuratzeko aukera aztertu dezala

eta aurrerantzean lehiaketa publikoak abiatzekotan zerbitzua kalitatez gain lan baldintzak bermatzeko neurriak plazaratu ditzala.